



ALKIZAKO UDALA



ALKIZAKO UDALAK ETA EUSKALTZAINDIAK JUAN IRAZUSTAREN LANA ETA HAREN GARAIA GOGORA EKARRI DITUZTE

- **Alkizako eta Hernialdeko erretorea eta euskal idazlea izan zen Irazusta. Gaspar Astete josulagunaren doktrina euskarara itzuli zuen, ikuspegi erlijioso zein linguistikotik polemika-iturri izan dena.**
- **Gaur, Irazusta eta bere garaia buruzko erakusketa inauguratu da Fagus-Alkiza Interpretazio-zentroan; ondoren, San Martin Tourseko elizan, *Juan Irazusta. Pertsona, garaia eta idazlana* liburua aurkeztu du Olatz Leturiagak.**

ALKIZA (2022-07-22). Juan Irazustak idazlan bakarra publikatu zuen. 1739an Gaspar Astete jesuitarendoktrina argitaratu zuen Iruñean, euskarara itzulita, *Doctrina Cristiana Aita Gaspar Astete Jesuitac erderaz compondua ipiñi zuan Eusqueraz D. Juan de Irazusta Erretore Hernialdecoac* izenburuarekin. Bi mendetan zehar, Gipuzkoako milaka haurrek memoriaz ikasi behar izan zuten. Aldekoak eta kontrakoak izan bazituen ere, bere itzala gaur egun arte iritsi da. Hala, Alkizako Udalak eta Euskaltzaindiak, Irazusta, bere garaia eta lana gogora ekarri dituzte gaur, erakusketa eta liburu baten eskutik.

Inaki Irazabalbeitia Alkizako alkateak adierazi duenez, Irazusta hil zeneko urteurrena pertsonaia argitara ateratzeko aitzakia aparta izan da: “Alkiza bezalako herri txikiek, are gehiago nekazaritza-guneak badira, nekez izan dituzte jaioterriari *tornuia* eman dioten pertsonaia ezagunak. Alkizak bat edo beste badu, baina guri dagokigu herriak eman dituen ahanzturatik ateratzea eta merezi duten distira ematea. Juan Irazustaren heriotzaren 250. urteurrena aitzakia egokia izan da *izar* horietako bat purgatoriotik ateratzeko eta bere sona XXI. mendera ekartzeko”.

Honela, gaurko ospakizunak bi zati izan ditu. Lehenengoan Juan Irazusta eta bere garaia buruzko erakusketa inauguratu da Fagus-Alkiza Interpretazio-zentroan. Besteak beste, bertan parte hartu dute Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendariak eta Alkizako alkateak. “Gaur inauguratu dugun erakusketak eta aurkeztuko dugun liburuak bi helburu nagusi dituzte: batetik, Juan Irazustaren figura berreskuratzea eta ezagutaraztea, eta, bestetik, XVIII. mendeko gipuzkoar gizartearen erradiografia moduko bat eskaintzea XXI. gizaldiko herritarrei, euskara ardatz hartuta”, azaldu du Irazabalbeitiak. Foru Aldundiak bere gain hartu ditu erakusketak eragindako gastuak eta alkateak esker oneko hitzak izan ditu

Aldundiko ordezkariatzat.

Bigarren zatian, San Martin Tourseko elizan, *Juan Irazusta. Pertsona, garaia eta idazlana* liburuaren aurkezpena egin du Olatz Leturiagak, liburuaren egileak. Aurretik, hitza hartu dute Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak, hurrenez hurren. Liburuaren egileak zein udal ordezkariak eskertu egin dute Jaurlaritzak liburua ekoizteko gastuak ordaindu izana.

Balio handiko testua

Bere garaian hautsak harrotu zituen Irazustaren doktrinak, ikuspegi erlijioso zein linguistikotik. Leturiagak adierazi duenez, ordea, sasoi hartako testuingurua aintzat hartu behar dugu: “Uste dut garai hartako testuinguruan ulertu eta berrikusi behar dela Juan Irazustak eta bere 1739ko doktrinak euskararen historiaren ikuspegitik duten balioa: XVIII. eta batez ere XIX. mendeko batzuek euskara txartzat hartu zuten Irazustak erabilitako euskara-moldea, baina baliteke kritika horiek lotuago egotea XVIII. mende erdialdean hedatutako gipuzkeraren joera eta ildoai, eta ez benetan itzulpen txarra izatearekin. Izan ere, ez dirudi Irazusta mugimendu horri lotu zitzaienik. Testua aztertuta, ordea, esan daiteke Irazustak euskaraz jakin bazekiela, eta garai hartan euskaraz halako testu bat idazteko gai izatea ez da gutxi. Herritar gehienak euskaldunak izan arren, ikasketak erdaraz egiten zituzten eta Larramendiren lanak iritsi arte Hego Euskal Herrian ez zegoen euskaraz idazteko sistema arautu, bateratu eta ezagunik”.

Bertaratu direnek liburuaren ale bat eskuratzeko aukera izan dute, eta Irazustari buruz gehiago jakin nahi dutenek hortxe daukate erakusketa, irailaren 16ra arte zabalik izango dena.